2015EKO ABENDUAREN 18KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko abenduaren hemezortzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide eta Marian Zufiria Apeztegia.

Imanol Aran Barandiaran zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Ane Irastortza Izagirre zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2015eko abenduaren 4an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2015eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 90 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HIROGEITA LAU MILA ZORTZIEHUN ETA BEDERATZI EURO ETA HIROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (164.809,69 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- ARERIAKO KUDEAKETA KONTRATAZIOAREN LUZAPENA.-

Udal honek Urbieta and Egaña S.L. enpresarekin izenpetu zuen 2013ko azaroaren 22an Lazkaoko Areria Kultur Gunearen Areto Nagusiaren ustiapena zerbitzuak emateko kontratua. Kontratu honen epea 2 urtekoa zen eta luzagarria da urte beteko bi luzapenen bidez.

Kulturako udal teknikariak luzapenaren aldeko txostena egin du eta Urbieta and Egaña S.L. enpresak ere luzapenaren aldeko bere iritzia eman du.

Hau honela kontratu hau urte betez luzatzeko proposamena egiten da.

Hau honela gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin kontratuaren luzapena onartu egiten du.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordeak, honako proposamenak aurkeztu ditu Tokiko Gobernu Batzarrera, bere onarpenerako:

- Herriko kultur elkarteei.- Beraien 2015 urteko egitarauengatik diru laguntza emateko proposamena.

Alkateak esaten du herriko kultur taldeei diru laguntzak emateko aurrekontuan jarritako partida 18.000 eurorekin jarri zela baina hortik, urtean zehar, ekintzaren bat diruz laguntzeko 4.983 euroko gastua eginda dagoela eta kultura batzordearen proposamena partidan gelditzen den diru zenbatekoaren araberakoa dela, hau da, 13.017 eurokoa. Esaten du baita ere egokiagoa iruditzen zaiola hasieran jarritako zenbatekoaren araberako diru laguntza banaketa egitea, horretarako partida handitu behar bada ere. Hau horrela banaketa proposamena honako hau izango litzateke:

TALDEA	ZENBATEKOA
GOIERRIKO BERTSO ESKOLA	1.471,59 €
OIN ARIN DANTZA TALDEA	10.229,55 €
KANTAKA ABESBATZA	1.805,68 €
ANTZAR GAZTEAK	1.893,18 €
LAZKAO ABESBATZA	600,00 €
JUN DA JO TXARANGA	2.000,00 €
GUZTIRA	18.000,00 €

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

- 40 segurar herritarrei.-

2015eko azaroaren 13an Areria kultur gunean egindako "ez dira aspaldiko kontuak" antzez lanarengatik 400 € emateko proposamena.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

- Zawopi Taldeari.-

2015eko jaiotza biziduna, errege kabalgata eta Astotxo jarduerengatik 2.500 €ko diru laguntza emateko proposamena.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

- Antsotegi Elkarteari.-

Astotxo Eguneko jardueraren antolaketagatik 2.500 €ko diru laguntza emateko proposamena.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, proposamena onartzea erabakitzen du.

Une honetan Ane Irastortza Izagirre zinegotzia bertaratu da.

V.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kirol Batzordeak egindako diru laguntza proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

Txindoki atletismo elkarteari diru laguntza.-

Joseba Bolinagak, Txindoki Atletismo taldearen izenean, "Josetxo Imazen Oroimenezko XV. Lasterketa" ekintzaren gastuei aurre egiteko 700,00 euroko diru laguntza ematea.

Arrastaka elkarteari diru laguntza.-

Arrastaka mendi taldeari, Ehun milak ultra trail probari babes ekonomikoa emateko 800,00 euroko diru laguntza ematea.

Lazkaoko Antzar Korrikalariak taldeari diru laguntza.-

Abenduaren 31an antolatuko duen San Silvestre probaren ekintzen gastuei aurre egiteko 1.750,00 euroko diru laguntza ematea.

Lazkaoko Antzar Pilota Kirol Elkarteari diru laguntza.-

IX. Goierri Beheko 10 udalen txapelketarako 100,00 € ko diru laguntza ematea.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak kontsulten inguruko arautegi baten aurreproiektu edo testu bat banatzen du jendeak irakur dezan.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hiru minutu direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO UDALA * AYUNTAMIENTO LAZKAO *